

METAFISIKA KRISTAU BATERAKO

1. Nire metafisika oinarritzen da naturaz gaindikoan, batez ere Jesusek egiten zituen mirarien estudio logikoan. Adibidez, hierarkiak kosmos material honetan badaude eta denok eza-gutzen ditugu, baina zeruetako erresuman, mirariak direla medio, beste molde aunitzetan antolatuak izaten ahal dira. Hori begien bistakoa da batik bat mirariei erreparatzen dienedako.

2. Ikusten denean Jesus mirariak egiten, lekukoen bitartez, orduan egia oinarritzkoa antzematen ahal da. Kosmos naturala igarotzea da erremedio barik edo badago naturaz gaindikorik. Ni makurtzen naiz bigarren ondorioaren alde.

3. Zalantzak egiten galdetzen zidan izeba batek ea egia ote zen dena, zerutik inor ez baita, zioen, jaitsi, baina nik arrapostu nion bazela bat jaitsi dena zerutik, eta hori da andre Maria, gure ama, eta Lourdes eta Fatima jarri nizkion adibide gisa. Eta konprobatua dago kantuak dioena, hauxe:

El trece de mayo
la virgen Maria
bajo de los cielos
a cobas de Iria.
Ave, ave, ave Maria,
ave, ave, ave Maria.

Errebelazio horrekin ama Mariak baieztatzen du Eliza kato-likoaren doktrina tradizional osoa, nik hemen ez dudana erre-pikatuko. Erraten die artzaintxoei nola Jesus, zeruko Bere tro-nutik, mintzen den hainbeste kondenatzen direlako, eta baita erakusten die ere, ikuskari batean, infernuaren ikuspen bat, non itxura izugarritzko deabruek atormentatzen dituzten kon-denatuen arimak.

4. Filosofia naturalak okupatzen bada igarotzen den mate-riazkoaz, metafisika tradizionala okupatu izan da klasikoki geldirik dagoenaz, naturaz gaindikoa izan behar dena derrigo-rrean, eta deitua izan da geldirik dagoen hori Izaera. Horretaz azkena izan dena komentarioak egiten Zubiri izan da, behin-tzat famatuena hori egiten zait. Eta lehena Izaera aipatzen be-re geldotasun absolutuan Parmenides izan zen, nahiz eta Aris-totelesen doktrina izan Elizako doktoreek hartu dutena euren eztabaidetan paganoekin. Eta niretzat ere izaerazkoa da Jainkoaren esentzia, da den hori betidanik, eta guk ere badu-gu Izaeraren partaidetzarik, kontzepzioaren momentutik ber-tatik bakoitzak badu bere izaera, eta hori jada betirako izango da. Hau da, hilezkortasuna.

5. Nire elebidea filosofia naturalaz hauxe da. Igarotzeaz okupatzen da eta da filosofia materiala. Bizidunen artean ebo-luzio bat omen dago. Eta ni ez naiz antieboluzionista, anti-darwinista baizik. Darwinek gerra unibertsal bihurtzen zue-lako, eta materialismo estriktoan ez dago unibertsal bihurtze-rik. Unibertsaltasuna beti eskapatu egiten zaigu materialismo estriktoan. Eta hori bide askotatik demostratzen ahal da. Adibidez, indukzio matematikoaren bitartez badakigu edozein dela eboluzioaren mementoa beti dagokeela memento hobe-rik, eta horrek erakusten du argi eta garbi sekula ez garela iristen portu definitibora.

Alemanian, protestantismoarekin, bazen garatu filosofia bat oso arrakasta handia eduki duena. Eta bertan igarotzearen le-

gea deskubritzen omen zen. Igarotzea molde dialektikoan gertatzen omen da. Eta Hegelek portu definitibo bat deskribatzen du, espiritu absolutua, eta haren ikasle ezkerreko Marxek, paradisu komunista teorizatzen du, beste portu definitibo bat. Baina arestian erran dugu nola materialismo estriktoan unibertsaltasuna lortu ezina den, beraz ez dago portu definitiborik material honetan, eta filosofia dialektikoak itzuli behar dira betiko filosofia naturalera, eta erran nola dena igarotzea den, besterik erantsi gabe (borondatearen filosofiak, Shopenhauer eta Nietztsenak bereziki, ere molde berberean destronatuak izan daitezke).

Horrek ez dakar, marxismoan adibidez, egiaren antza handiak asmatu ez direnik. Zientzia politikoan modu bat da erroreak detektatzeko, eta ondorioz korrejitzeko, baina modu asko daude erroreetatik ikasteko, eta sekula ez da ahaztu behar politika zientzia praktikoa dela, etorkizun dena indeterminatua dela. Askatasuna eman digun Jainkoak ere hori erraten digu, nahiz eta Harek badakien, baina aske izanik ez da determinatua humanoaren bizitza. Ni, erraterako, marxista izan gabe, banago seguritatea ematen duen sozialismo baten alde, baina alferkeria ere gaizki ikusia dagoena, eta behin diagnostiko diferentziala eginez gero gaixotasunekin, zigortua ere dagoena. Habilidadea libre, erraten den moduan, beti ere legearen barruan, jakina.

6. Nik lanaren kultura bat proposatuko nuke. Horretarako ez da zertan herria goseak, edo egarriak, eduki. Horrekin iraultzak ere gertatu izan dira, eta ez Gibelaldeak dioen moduan, espiritu ekintzailea, ez derrigorrean. Delinkuentzia ere hortikan dator. Eta badago egarri bat sekula ase ez dena, eta da egarri intelektuala, unibertsaltasunera iritsi ez delako sortua eta atsedunik ez daukana naturalean inoiz. Hortikan ere badaiteke, apetituak ondo zuzenduz gero, halako espiritu ekintzailea elikatu, gizarte sozialista batean egonda, eman dezagun, seguritate materiala ematen duen gizarte batean. Behin,

ni billete barik trenean sartuta nengoela jangelan, nirekin jarri zen Kaliforniako zahar batek, afaltzen geundela, esan zidan ezen emakumeak seguritatea asko estimatzen zuela, eta sekula ez zait ahaztu hori. Seguritatea materiala dena, kontzepzioaren momentutik hil arteraino, eta hori ezin da sostengatu ez badago lanaren kultura bat, edukazioaren bitartez, fantaseatzen ari naiz, gure gabezia handiak ikasia eta egiazki bizia, eta hori ere bada herria egarriak edukitzea. Herria eta gizarte osoa ere bai, mandatarietatik hasita azken eskekoraino. Baina egarria ase egiten da, denboralki, lanaren bitartez, eta lan bizi-za oparo bat, orduan, estimatua da gizartean eta atsedena derrigorrezkoa da. Festa egunak behar beharrezkoak dira osasunerako, oporretakoak, aste buruetakoak eta egunerokoak, zeren lo egiten ez bada gaixotu egiten baita humanoa, ondo jakina denez.

7. Seguritate sozialarekin pixka bat obsesionatua nago, Suediako eredua adibidez. Baina zientzia politikoaren ezaugarrietako nagusienetako bat da inseguritate maila ezberdinak, baina inseguritateak, egotea beti, eta arrazoia da, zientzia praktikoetan, etorkizun dena ez delako jakina. Eta beldur maila bat beti da presente, egin beharko litzateke hori ez izatea patologikoa.

Nik beldurretan Jainkoaren beldurra daukat dela sanoena. Baina ateoek hori ez didate onartzen, hala ere seguru nago konforme daudela inseguritate mailaren bat beti egongo dela.

8. Filosofia naturala landuta inseguritatea, dena igarotzea delako, espiritu pentsalarian presente egiten da. Eta filosofia naturalean geratuz gero inseguritate sentimendua handia izan daiteke. Hori gertatu izan da existentzialistekin, Kierkegard harekin hasita. Erlijioaz dudatzen hasita, seguritatea ematen duen gelditasuna desagertu egiten delako pentsamendutik.

9. Ba al dago demostratzerik zeruetako erresuma beste kosmos batean dagoela?. Jesusek bazion Pilatosi erran nola

Bere erresuma beste kosmos batekoa den, baina ezin jakin daiteke demostrazioen bitartez?. Berriro ni erreparatzen diet mirariei, ea zer atera daiteken euren estudiotik. Eta baldin badira aprioristikoak, esan eta izan, orduan hortik ondorioztatzen da ezagutza unibertsala, eta hori ezinezkoa da kosmos honetan, beraz Jesusen erresuma ez da kosmos honetakoa eta bai beste kosmos hobe batekoa, kosmos material honetan ezin deskubritu daitekeena, inizatiba handik etorri behar baita. Eta Aristotelesek bazioen Jainkoak ez zuela parte hartzen kosmos material honetako asuntoetan, baina errebelazioaren historia oso bat badugu hori gezurtatzen duena gure hobetarako, gure onerako.

10. Infinitua izan daiteke potentzian eta aktoan, potentzian dago kosmos material honetan, eta aktoan dago mirariak egingen dituen Haren baitan, zeren aprioristikoak izanik ezagutza unibertsala duelako seguritatea ematen baitigu. Eta beraz, kosmos goragokoan kokatu behar da infinitua aktoan.

Gero, doktrina kristaua da ezen soilik santuak sartzen ahal direla zeruetako erresuman, kosmos goragoko horretan dagoena. Eta nik, intelektualismo moralaren teoriari jarraituz, ondorioztatu izan dut santutasuna, maila moralik handiena, ezagutza unibertsalarekin lortzen ahal dela, graziaz. Baina nik ez dakit seguru, intelektualismo moralaren teoria sokratikoa da, humanoa, eta egia baldin badakar orduan egiazkoa da nire ondorioa, nahiz eta horrek ez ekarri mirariak laguntzarik gabe egin ahal izatea. Otoitzetan gure alde egiteko eskatzen diegu, nori eta Jainkoari, Harek ba ahal du eta.

Roman Garmendia